

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

*Euskal Udalekuak: Bergarako
topaketa*

*Bergara,
Gipuzkoa*

Aurkibidea



Biografia



Euskal Udalekuetan lanean ibilitako gizon-emakumeen oroitzapenak jaso genituen Bergaran eginiko topaketa honetan.

Elkarrizketatutako partaideak:

Eider Garmendia, Luzma Rojas, David Urrutia, Amaia Madinabeitia, Unai Bergaretxe, Garikoitz Lopez de Munain, Uxue Zabaleta, Gorantzi Irastortza, Eli Payros, Jone Ariznabarreta, Kontxi Laskurain, Mikel Uribarren, Eneko Bergaretxe, Agurne Arizmendi eta Ana Carpintero.

Zintak

BER-336

- **Proiektua:** Antzin eta Urdirozko udalekuen historia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elxepuru, Juan Martin - Plazaola Otadui, Estepan
- **Data:** 2012-07-07
- **Iraupena:** 50 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Erreka eta "pizkina olinpikoa"

- **Erref:** BER-336/002
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:00:32. **Bukatu:** 00:01:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekek eta uretako jolasak

Laburpena:

Eider Garmendia Urretabizkaia. Lehenengo aldiz errekan sartzea gogorra egiten zen, ura izoztuta egoten zelako. Hiru urte egon zen begirale, eta ez zuen 'Pizkina Olinpikoaren' berririk izan. Sekretua zen, ezin zitzaien umeei esan (arriskuak ekiditeko). Begiraletza utzita gero, obratara joandako batean ezagutu zuen Eiderrek.

2. "Alderantzizko eguna" sukaldean

- **Erref:** BER-336/004
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:02:52. **Bukatu:** 00:05:08

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Luzma Rojas. "Alderantzizko eguna" astean behin egiten zen. Sukaldean, afaria lehenengo, gero bazkaria eta gero gosaria. Lan handia zen, goizetik patatak zuritzen. Lagunak parrandara, eta goizean arazoak. Hil zen Bergarako lagun batez gogoratzen da, Susana. Haurrak ez zuten gustora hartzen egun hori.

3. Uraren eskasia eta txinbo xaboia

- **Erref:** BER-336/006
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:05:49. **Bukatu:** 00:08:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Dabid Urrutia eta Amaia Madinabeitia. Urdirotzeko arazo bat ur eskasia zen. Fibratzko hiru deposito betetzen ziren. Hirugarren txandarako oso gutxirekin geratzen ziren. Txinborekin garbitzen ziren errekan. Arazoa zen nesken ilea, oso latza geratzen zen. Sukaldariak gaueko hamabiak aldera joaten ziren errekarra garbitzera. Gero oso usain onarekin itzultzen ziren udalekura. Gehienen ustez, ez zuten Chimbo erabiltzen.

4. Erdaraz egiteagatik zigorrak

- **Erref:** BER-336/008
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:08:10. **Bukatu:** 00:10:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Dabid Urrutia. Haur asko inguru erdaldunetatik zetorren. Eurendako aukera ona zen Urdirotz, baina joera zuten erdarara jotzeko, eta arazoa zen. Zigor txiki batzuk ipintzen ziren erdaraz egiteagatik, haurrak motibatzeke. Baina Diputazioko udalekuetan arazoak izan ziren horrelako gauza batengatik. Eztabaida sortu zen begiraleen aldetik. Hortik aurrera argi ibili behar izan zuten. Eta ez euskararen arloan bakarrik, udalekuaren barruan inportantziarik ez zuenak har zezakeelako handik kanpora.

5. Afari bereziak sukaldari eta begiraleen artean

- **Erref:** BER-336/010
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:11:05. **Bukatu:** 00:12:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Unai Bergaretxe. Afari bereziak larunbatetan egiten ziren, harremanak hobetzeko. Oso berandu hasten zen, begiraleek beren eginkizunak amaitu ondoren izaten zelako. Oso giro polita egoten zen. Sorpresak ere bai. Patata-tortillak arrautza oskolarekin, kafea gatzarekin eta horrelakoak.

6. Orreagara ibilaldia

- **Erref:** BER-336/012
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:13:42. **Bukatu:** 00:15:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

<p>Garikoitz Lopez de Munain Urrizalki. Urtero egiten zen irteera Orreagara. Urte batean pentsatu zuten zerbait gehiago egitea. Mozorrotu egin ziren eta Orreagatik Ibaiñetarako bide zaharrean euskaldunek frankoiei egin zieten enboscada antzestu zuten. Jendeak harrituta begiratzen zien.</p>

7. Musikarekin lotutako oroitzapenak

- **Erref:** BER-336/014
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:16:03. **Bukatu:** 00:16:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Uxue Zabaleta. Goizero Sorotan Belerekin esnatzen ziren. Otorduetan "gosaldu nahi dugu..." abestia kantatzen zuten. Gaur egun ere kantatzen die alabei eta Urdirotz gogoratzen du.

8. Urdirotzen xarma eta magia berezia

- **Erref:** BER-336/015
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:16:50. **Bukatu:** 00:17:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

<p>Uxue Zabaleta. Urdirotz leku magikoa da. Gaur egun ez dago horrelako udalekurik eta pena bat da. Xarma hori galtzen da. Bera prest egongo litzateke bere alabak Urdirotz bezalako udaleku batera eramateko, asko ikasten da.</p>

9. Begiraleak zirikatzen

- **Erref:** BER-336/017
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:19:01. **Bukatu:** 00:21:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Gorantzi Irastortza Aldanondo. Begiraleek zirikatu egiten zuten eta behin Gorantzik zigarro paketea ezkutatu zien. Azken egunera arte ez zien bueltatu.</p>

10. Bi ahaterekin etxera

- **Erref:** BER-336/020
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:22:23. **Bukatu:** 00:23:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Gorantzi Irastortza Aldanondo. Bigarren txandan joaten zen Antzinera eta herriko festak izaten ziren orduan. Ekitaldietako bat ahateak errekan askatzea izaten zen. Udalekuko 100 ume baino gehiago sartu ziren erreka ahateak harrapatzera. Urte batean bi ahate eraman zituen berak etxera.

11. Katak eta irratia

- **Erref:** BER-336/023
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:24:48. **Bukatu:** 00:27:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:

Unai Bergaretxe. Etxeak ez zeukan argindarrik eta irratia erabiltzeko motorra ipini behar zen martxan. Bazkalorduko kanta. Irratia gauez erabiltzen zen gehienbat. Ramon Arratibel "Rayo" sarritan joaten zen bisitan eta ipuinak kontatzen zizkien afalostean. Mezuak esan eta umeei zirikatzeke ere erabiltzen zuten irratia.

12. Anai-arreba amerikarrak

- **Erref:** BER-336/025
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:28:32. **Bukatu:** 00:29:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Eli Payros. Urte batean, gurasoak euskaldunak zituzten hiru anai-arreba amerikar joan ziren udalekura. Begiraleek agindua zeukaten haiei euskaraz egiteko. Txikienak nahiko gaizki pasatu zuen, ez zuelako ezer ulertzen.

13. Herrialdeen egunak

- **Erref:** BER-336/027
- **Iraupena:** 0:03:09. **Hasi:** 00:30:07. **Bukatu:** 00:33:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Jone Ariznabarreta. Txanda osoa gai baten inguruan antolatzea pentsatu zuten: "Urdirutz 91, munduan zehar". Egun bakoitzean herrialde batera iristen ziren eta pasaporte moduko batean zigilua ipini behar zuten. Ekintza guztiak herrialdearekin lotutakoak izaten ziren. Oso ondo atera zen ideia hori.

14. Euskalkiekin elkar ulertzeko arazoak

- **Erref:** BER-336/029
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:33:46. **Bukatu:** 00:35:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Kontxi Laskurain. Lehenengo aldiz begirale gisa Antzinera joan zen Bergarako beste neska batekin. Goierriko begiraleei ulertzeko arazoak izaten zituzten, hitz batzuk desberdin esaten zituztelako. Adibidez, Bergaran "izarak" esaten zuten, goierrikoek aldiz "maindireak". "Prakak" vs "Galtzak"...

15. Bikote baten "ezkontza", etxeko ganbaran

- **Erref:** BER-336/031
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:35:42. **Bukatu:** 00:36:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Mikel Uribarren. "Maitasunaren eguna" egin zuten behin. Bikote baten "ezkontza" antolatu zuten ganbaran. Etxerakoan, autobusetik jaitsi eta mutilak esan zion amari: "begira ama, hau nire neska-laguna da". Eta hark: "ezta ezkondu izan bazinate ere!"

16. Sukaldari, txofer eta mantenimentu lanak

- **Erref:** BER-336/033
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:37:02. **Bukatu:** 00:38:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Eneko Bergaretxe. Sukaldean aritu izan zen. Kotxearekin txofer lanak ere egiten zituen; erosketak egin, bazkariak eramane. Argindarraren motorra zaintzea ere bere lana zen.

17. Jolasean aritzea baino arrantzara joatea nahiago

- **Erref:** BER-336/035
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:38:46. **Bukatu:** 00:39:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Eneko Bergaretxe. Nahiz eta begiralea ez izan, harreman onak egin zituen umeekin. Gogoan du iparraldeko mutiko bat, beste umeekin jolastu beharrean arrantzarekin pentsatzen egoten zen hura.</p>

18. Begiraleak ezin etxeratu

- **Erref:** BER-336/037
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:40:05. **Bukatu:** 00:41:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

<p>Agurne Arizmendi. Azkeneko umeak etxera banatzen zituztenean, begiraleak ez ziren zuzenean etxera joaten. Herriz-herri ibiltzen ziren egun batzuetan, beste begiraleengandik ezin banatuta.</p>

19. Urdirotzen magia berezia

- **Erref:** BER-336/039
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:42:05. **Bukatu:** 00:43:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

<p>Ana Carpintero. Diputazioako udalekuetan ibili izan zen Urdirotz deskubritu aurretik. Bi txanda bakarrik egin zituen arren, familia horretako partaide sentitzen da. Urdirotzek magia berezia dauka eta begirale bezala azken urteak han pasatzea oparitxo bat izan da beretzat.</p>

20. "Este pan" anekdota

- **Erref:** BER-336/041
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:43:52. **Bukatu:** 00:45:57

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Gorantzi Irastortza Aldanondo. Txango batean, agure bati ogi zati bat eskaini zion. Hark gazteleraz ogi hura nongoa zen galdetu zion ("¿Este pan de dónde es?"). Eta Gorantziren erantzuna: "De Mondragón". Estepan begiraleari buruz ari zela uste zuen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-07-10

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com